

BURDIN LANEKO ZENBAIT TEKNIKU ITZ

San Martin'dar Yon.

Burdin lanak, gure errian, edestiaurrek datorkiguz. Bere oñarrien berri, euskera beraren bezela, oso gutxi da dakiguna. Berriz, azkenengo gizaldian, Euskalerriak ezertan aurrerapen aundik einbadu burdin-lanetan izan da noski baño noskiago aurrerapenik aundieta. Aurrerapen orrek, ala bearrez, berakin ekarri zitun tekniku itzen aldakizunak eta zabaltasunak.

Noizbait indar aundia artu zuten Euskalerriko oleak, baño, azkenengo urte auetan aurrerapenik aundiak erbestetik etorri zitzaizkigu eta ez da arritzekoa, gaur, tarteka marteka, euskera-ren muñetan arrotz itzak arkitzea ; batez ere gogoan baldin budugu gizaldi oso bat baño geiago daramagula erderazko teknika elertiaren menpean. Gure artean arduradunik izan ez dugulako itz oiek gure izkuntzaren zuztraietara aukeratutzeko. Itz baten : euskera, malllarik geienetan gutxi landua bada, burdin teknika gaian esan genezake oraindik ez dugula ezertxo ere egin. Gañera, sarri, euskal tresnak, berriak sortuala zarren itzak baztertu egin dira, naita oiek lenaren ordez gauza berdiñerako asmatuak izan, lengo izena bera ain zuzen artu bearrean ; gaur orregaitik langai aien oroitzapenik ere ez dugu.

Bear bada Aita Larramendi izango genun gure lenbiziko iztegilaria, XVIII' garren gizaldiko asieretan.

Mogel izan genun bere ondorengo, batez ere teknika gaietan, « Peru Abarka » dalako liburuan, ez bakarrik gaiki ugari izendaten, baizik orduango ola-zarrei buruz ere naikoa berri eman zizkigun ; lengo izen asko denborarekin batzuek galdu eta beste batzuek baztertu badira ere oraindik asko ta asko bizi-biziak edo erdi biziak ditugu beñipein, da agoz-ago erabiltzen dira Eibar'en, Mogel egillearren jaioterrian.

Esan bearra dugu, geroztik gai ontaz izan ditugula iztegilari onak, batez, ere Azkue zana, baña oraindik sail aundiak dugu landu gabe.

Eibar'en, esan oi danez, euskera mordolloa dugu, baña arantza artean arroza ederrak izaten diran bezela, baditu gure euskerak bere edertasunak. Asko esatea bada ere, nik ez uste Euskalerri guzian, gaur beintzat, Eibar'en aña tekniku itz iñun erabiltzen dituztenik.

Bear-bearrekoa zaizkigu galtzorian dabiltzen izen oiek bildzea, bai jakintzarako eta bai zabalkunderako. Ori dala ta aspalditxoa nitun oietako batzuek eta baita ere zerrenda bat argitara eman ; ikusi : EUZKO-GOGOA, 1951'gko. 9-10'gn. zenbakian 56'gn. orrialdean « Euskeraren itz aberastasuna » Uarrain'ek egina. Orain berriz argitaratzerakoan burdin-laneko euskalitz guzien billera bururatu zait eta ortarako Azkue eta Bera-Lopez Mendizabal'en iztegiak (gaur ezagunenak eta osoenak diralako) aztertu bearra izan dut. Ala ere badakit uts aundiak izango ditudana, ez baita erreza izen danekin gogoratzea.

Badira Eibar aldean teknikulari euskaltzale batzuek, burnilaneako teknika gaiak euskeraz eman nairik dabiltzenak eta adizkide oiek bultzatu naute lan au egitera. Oraindik izango dira beste zenbait itz Euskalerrian sakabanaturik nork jasoari begira, ene pozik aundiengoa beste norbaitzuk aien billeran arazotuko balira. Burdin-teknikari buruz, euskerari dagokionez, gazte oiekin itxaropen osoa dut, eta nork daki oiek dakarren kementasuna ikusiaz beste nimbait jarraitzalleren batzuek azalduko ez ote diran ? Denok alegindu bear giñake euskal-teknika iztegia aberasten. Adibidez, burdin lan oiek zelan erabilli jakiteko teknika iztegia dugu bearrezkoena. Eibar'ko esaera zar batek dio : « zerekin badago, badakigu zelan ».

Da ez dezagun esan gure izkuntza txiroa danik ; beste izkuntza batzuek aberatsagoak badira, berek landu dutelako izango da. Gure arloa betetzea gure ardurakoa dugu, eta ez genuke atsedenik artu bear erriak ikusi arte ogia jateko ere badala gure euskera zarra. Ba, zoritzarrez, gauza guziak cxiakin neur-

tzen diran garaian bizi gera eta gogotsuok ogi-pozik gabe landu bear beste oieri gogaiki ontan ogi-bidea billatu arte. Ondikotz. Arantzazu'ko praille gazte batek esan zidan bezela, gure erriak Santxo asko eta Kijote gutxi ditu. Berriz, euskal-teknika piztutzen ezpada ere : « ...Geroak esan beza : « Erri bat izan zan » . .

Baña oldozmen samingarriak era bat aldameneratu ta noan neure arira.

Irakorle : itz sorta ontan, arriaroko izenen ondoan gaur erde-rak bereganatutako itzak ere billatuko dituzu, adibidez : *artazi*, *arpiko*, *zulakaitz..*, *gurizabal*, ta abar, *arri* edo *aitz'en* zustraiak dituztenak eta *txatarra*, *totxo*, t.a., gaztelerako iztegietan ezarriak diranak. Ortik ikusi euskal-tresna oien aintziñatasuna.

Obeto aukera bearrez sailka edo taldeka jartzera nijoak : gaiak, tresnak, tresna-lankaiak, t.a., guztiz zortzi sailletan antolatuak. Azkue'ren iztegitik jasotakoak ondorean (A) eramango dute agiritzat, berriz Bera-Lopez Mendizabal' enekoak (B.-LM.) eta Eibar'en jasotakoak da iztegi oietan aipatu arren oraindik Eibar'en erabiltzen diranak (E).

Izen batzuek burdin-lanen barruan sartzen ezpadira ere, !an oieri laguntzen diotelako edo eureri uztarturik erabiltzen diralako jartzan ditut, ene iritxiz bearrezkoak diralako :

GAIKIAK-MATERIALES (Lenengo sailla)

Altzairu — acero. (A).

Berun — plomo (A). (E).

Burdin — hierro. (A). (E).

Burdingai, burdindegia, burnarri — mineral de hierro. (A).

Burdin-gorri. cobre. (B-LM).

Burni — hierro. (A).

Burni-ori — bronce. (B.-LM.). (A).

Gai — materia, Material (B-LM.). (A).

Gaiki, gai — Material. (B-LM.). (A).

Galtzairu — acero (A) (E).

Ikatzarri — diamante (B-LM) (A).

- Me — mineral (A).
 Uire — oro (A) (E).
 Urraida, ure-aire — cobre (A).
 Zidar — plata. (E).
 Zillar — plata. (A).
 Zillarbizi — mercurio, azogue. (B-LM). (A).

LANKAI-GAIAK. — ELEMENTOS DE MAQUINAS

(Bigarren sailla)

- Altzagarri — calzo. (Eibar'en zaarrak bakarrik erabiltzen dute)
 Ardatz — eje. (A). (Eibar'en baserritarrak).
 Ardatz — husillo macho. (E).
 Ardatz-nagusi, ardatz-nausi — husillo patrón. (E).
 Ari — rosca. (E).
 Azelin — turbina de agua (Eibar'en zaarrak bakarrik)
 Biribil — cilindro. (B-LM.) (E).
 Biurriko — tuerca. (A).
 Borobil — esfera, esférico. (B-LM).
 Burkontz — caldera. (B.-LM.)
 Burniziri — cuña de hierro. (A).
 Burpil, gurpil — rueda. (A) (Eibar'en zaarrak bakarrik)
 Eernal-ziri — cuña (B-LM.)
 Ese — eslabón en forma de S. (A).
 Eskuleku, kider, elbide — manivela, manubrio. (A). (B-LM.)
 Ingurubil — espiral. (A). (B-LM.)
 Izkilluzte, ezur — armazón. (B-LM).
 Karraka — turbina. (B-LM).
 Karakote — gancho colocado a la extremidad de algunas cadenas. (A)
 Kate — cadena (A). (E).
 Katentxu — cadenilla (A)
 Katetxu — cadenilla (E.)
 Kerten — mango. (A). (E).
 Lorkate — cadena grande. (A).
 Mailla, katemalla — eslabón de la cadena. (A)

Motoi — polea. (A). (B-LM).
Narkate, katengi — cadena mediana. (A).
Obo, kate-begi — último eslabón circular de la cadena (A).
Orratz, katenorratz — púa de la cadena. (A).
Pazi, paziña — caldera. (A).
Tikinoe — turbina. (A).
Txakur, zepo — perro de arrastre del torno. (Eibar'en bietara erabiltzen da.)
Txirrika — eslabón que gira sobre sí. (A).
Txirrindola — argolla. (A). (E).
Txirringa — rueda (A).
Ugal — correa, correa de transmisión. (E).
Uraga-giltz — pistón. (B-LM.).
Uzkatxo, garranga — tornillo. (B-LM.)
Zil, ziri — eje de poco diámetro, pasador, guia de granetes. (E).
Zorro — tuerca, tuercas en carros de máquinas en general. (E.).

TRESNAK — HERRAMIENTAS (Irugarren sailla)

Ardatz — macho de roscar. (E).
Arpiko — cincel, cincel de cantero. (E). (A).
Airi — piedra, muela de esmeril. (E).
Artazi — tijera. (A). (E).
Barauts — broca. (E).
Barauts-etxe — porta-brocas. (Eibar'ko zaarrak bakarrik).
Burdin — aga : palanca, barra de hierro. (A.).
Burdin-kato — tenazas grandes de hierro conque se mueve la goa. (A).
Epaiki — sierra (E).
Epaiki-etxe — porta-sierra arco de sierra. (E).
Ezten — punzón. (B-LM) (E).
Giltz — llave. (A) (E).
Guraiz — tijera. (A).
Gurizabal — corta-frios cincel. (E).
Karraka — lima. (A) (B-LM).
Langai — herramienta (A) (B-LM).
Mailluka — martillo. (E).

- Maillu — mazo. (E).
 Maratilla — destornillador. (E).
 Matrallu — martillo. (Mutriku'n da beste erri batzuetan.)
 Orratz — aguja. (A) E).
 Orrika — tenazas. (A).
 Ortz — cuchilla. (E).
 Ortz-etxe — porta-cuchillas. (E).
 Otxau, otxabau — escariador. (E).
 Tresna — herramienta. (A). (B-LM).
 Tresna-zorro — herramiental. (B-LM).
 Trintxa, trintxer — cincel. (B-LM).
 Txantxilloi — comprobador. (Eibar'en onela erabiltzen da. Di
 ñuenez, prantzerako échandillon'dik eidator.)
 Txirikin — tenazas grandes de ferrería (A).
 Zulakaitz — cincel (Eibar'ko zaarrak).

TRESNA-LANKAIAK — MAQUINAS HERRAMIENTAS

(Laugarren sailla)

- Ago — fragua. (A).
 Artazi — tijera. (A). (E).
 Bilgin — torno. (B-LM).
 Epaiki — sierra. (E).
 Eraingi — motor, máquina. (B.-LM).
 Firi-fara — cabezal de tornillería. (E).
 Guraitz — tijera. (A).
 Igela — laminadora. (A).
 ikin, igille — motor. (B-LM).
 Jungura — yunque. (E).
 Lainkai — instrumento de trabajo. (A).
 Lankai — instrumento, máquina, aparato. (B-LM).
 Laztabin — barrenia, (A.).
 Laztabin — barreno, taladro. (B-LM).
 Marruza — garlopa, cepillo. (B-LM).
 Matxino — prensa de forja. (Eibar'en erabiltzen da, prantzerako
 Machine'tik artua noski.)

Sutegi — fragua. (E).

Tramakulu — aparato, máquina. (A).

Trinka — prensa. (B-LM).

EGIPENAK — OPERACIONES (Bosgarren sailla)

Akabatu, akabau — pulir, bruñir. (E).

Akaratu, egokitu — ajustar. (A). (B-LM).

Argi-eraín — operación de abrillantar en el proceso de pulido. (E).

Arildu, arilkatu — devanar. (B-LM).

Arpikotu — cincelar. (B-LM).

Berundatu — emplomar, guarnecer de plomo. (A).

Berundu — aplomar. (A).

Biribildu — tornear, cilindrar. (E).

Burdinaztu — herrar, guarnecer de hierro. (A).

Burdiña-landu — forjar. (B-LM).

Burneztu — chapear. (B-LM).

Ebagi — tallar, cortar. (B-LM). (E).

Galdu — fundir. (Eibar'en zaarrak).

Galgatu, berdinkatu — nivelar. (A). (B-LM).

Garausartze — desporar, llenar los poros al fundido. (E).

Igekitu, iyekitu — copiar. (B-LM).

Karrakatu — limar. (B-LM).

Landu — labrar, elaborar. (A).

Laztabindu — taladrar. (B-LM).

Marruzketatu — cepillar. (B-LM).

Trinkatu — prensar. (A).

Urtu — fundir, aguar. (E).

Urtze — fundición. (B-LM). (E).

Zulatu — agujerear, taladrar. (E).

Zuzendu — enderezar, rectificar. (B-LM). (E).

Zulapetu — minar, excavar. (A).

BEROZKO ETA ZAIPEZTATU ERABILKUNDEAK — TRATAMIENTOS TERMICOS Y DE PROTECCION

(Seigarren sailla)

- Berozko — tratamiento térmico. (B-LM).
Galdatu — caldear. (A) (E).
Gori-gori — al rojo vivo. (E).
Goritu — recalentar. (E).
Illundu — pavonar. (E).
Iraotu — revenir, segunda operación del temple para mejoramiento del mismo. (E).
Suberatu — recocer, destemplar. (E).
Urebagi — grieta producida al enfriamiento de la pieza sometida al temple, debido a los efectos de contracción. (E).
Urrebits — baño de oro, dorado. (A) (B-LM).
Urreztatu — dorar. (A).
Zidarbiztu — platear. (A).
Zillarbits — baño de plata, plateado. (B-LM).
Zillartu — plateado. (B-LM).
Zillarztatu, zillarreztatu — platear. (B-LM).

LANKEIAK — OCUPACIONES u OFICIOS

(Zaspigarren sailla.)

- Akabatzalle — pulidor, bruñidor. (E).
Arotz — operario. (A). (B-LM).
Asmari, asmatzaile — inventor. (A) (E).
Biargin, beargin — trabajador, obrero, operario. (E)
Bilgintzai — tornero (B-LM).
Burdinkari — comerciante de hierro. (A).
Burmegille — hojalatero, fontanero. (B-LM).
Buzkindari — maquinista (B-LM).
Eraingilari — maquinista. (B-LM).
Garausartzalle — desporador, el que se dedica a llenar los poros al fundido. (E).

- Idurgin — forjador. (B-LM).
 Igelari — laminador. (A).
 Ikerle — perito, experto. (A).
 Labari — hornero. (A). (E).
 Langille, langin — operario, obrero. (A). (B-LM).
 Langintza — oficio. (B-LM).
 Lankain — trabajador activo. (A).
 Lankei — ocupación, oficio. (A).
 Meatzari — minero. (A).
 Pazigille — calderero. (A).
 Urregin — orfebre, orifice. (A). (Eibar'en zaarrak).
 Urtzailla, urtzalle — fundidor. (A).
 Zillargille — platero. (B-LM).
 Zillarginza — oficio de platero. (B-LM).
 Zillartari — plateador. (B-LM).

BATZUEK — VARIOS (Zortzigarren sailla)

- Abe, laza — viga. (A). (B-LM).
 Adabatu — remendar, componer. (A).
 Ago, agoe — masa de hierro fundido. (B-LM). (A).
 Aize-bide — ventilador, caño por donde entra el aire en una
 fragua. (A).
 Aizezki — neumático. (B-LM).
 Aize-zulo, aixe-zulo — poro de la pieza fundida. (E).
 Akatz — mella, muesca. (A). (E).
 Albata — compuerta de presa ó embalse. (E).
 Aldaska, muskil — vástagos. (B-LM).
 Ale — grano. (A). (E).
 Aleka — chatarra que se arranca al producir el agarrotamiento
 en cualquier superficie de rozamiento, por lo general, de-
 bido a la falta de lubricación. (E). Erderaz ez du izenik.
 Ao — corte de cualquier herramienta. (E).
 Apal, oltza — estante. (E). (B-LM).
 Apalategi, Apaladi — estantería. (B-LM). (E).
 Apurtunia — rotura. (E).
 Arasa — estante. (E).

- Arasak — estantería, estanterias. (E).
Arauketa, Eraketa — sistema. (B-LM).
Arrago — crisol. (A).
Arrago-etxe — cavidad que en la parte inferior de los hornos sirve para recibir el metal fundido. (A).
Asma, asmatu, asmau — inventar. (A). (E).
Asmakeri — invento. (A). (E).
Asmaketa — invención. (A).
Asmamen — facultad de inventar, inventiva. (B-LM).
Ate-morrollo — cerradura. (Eibar'ko zaarrak bakarrik.)
Berdingai, einkai — balancin. (B-LM).
Berdinkai, galga — nivel. (A). (B-LM).
Berun-neria — guarnición de plomo, mercaderías de plomo. (A).
Biar, Bearra — trabajo, operación, menester, obligación. (B-LM). (A). (E).
Biargin, Beargin — trabajador, obrero, operario. (E).
Biargintza, beargintza — faena. (A). (B-LM). (E).
Burdin-ari — hilo de hierro, alambre. (A).
Burdin-gesal — escoria líquida de hierro. (A).
Burdin-kaka, burdin-letzo — dagafirro, escoria sólida de hierro. (A).
Burdinkara, Burdinkaro — lo que semeja al hierro. (A).
Burdin-ola, Burni-ola — ferrería, fábrica de hierro (A).
Burme — hojalata. (B-LM).
Burni-bizi — imán. (B-LM).
Dendal — apcyo y sostén del mazo en las ferrerías. (A).
Einkatu — equilibrar. (A).
Erdoi — oxido, herrumbre. (A).
Erdoildu — roñarse, oxidarse. (A).
Erdoilkara — herrubroso. (A).
Erdoiltsu — lleno de herrumbre. (A).
Eskulan — mano de obra. (A). (E).
Estolda — alcantarilla, caño en que se vierte y se le dá salida a la escoria de hierro de las ferrerías. (A).
Extun — eslabones de la cadena. (A).
Galbae-galbai' — arnero, criba. (A). (E).

- Galda — fundición, fábrica donde se funde el hierro u otros minerales. (A). (E).
- Galgeta — nivelación. (B-LM).
- Galgatzalle, berdinkai — nivelador. (B-LM).
- Galgatzalle — gramil. (A).
- Garabi — grua. (A).
- Goa — masa de hierro candente. (A).
- Gogortu, estuagotu — condensar. (B-LM).
- Indar — energía eléctrica, fuerza motriz. (E).
- Indar-etxe — central eléctrica. (E).
- Irrari estampar. (B-LM).
- Irudi — estampa. (B-LM).
- Kaizu — calibre, dimensión. (B-LM). (A).
- Kaizu — diámetro. (B-LM).
- Karrazkin — limadura. (B-LM).
- Kateaztatu, kateztatu — revestir de alambre una olla ó vasija cualquiera para consolidarla. (A).
- Katigatu — encadenar. (A). (E).
- Kidar — mango de instrumento (A).
- Kulunka, zalantza — balance, balanceo. (B-LM).
- Laba — horno. (A). (E).
- Lan — trabajo. (A).
- Lanaldi — rato de trabajo. (A).
- Langai — empresa, proyecto. (B-LM).
- Langei — fleje. (A).
- Lankain — trabajador activo. (A).
- Lankei — ocupación, oficio. (A).
- Lantegi — taller. (A).
- Laspel — gas. (B-LM).
- Loro — alambre. (A).
- Lurrun — vapor. (A). (E).
- Marraztatu, marreztu — dibujar, delinear. (B-LM).
- Meatze — paraje minero. (A).
- Mia — mina. (A).
- Odi, tutu — tubo. (A). (B-LM).
- Odi, lako — cañería. (A). (B-LM).
- Oditza — tubería. (A).

- Ola — ferrería. (A).
Paldo, ustei — llanta. (A). (B-LM).
Pilandera, txaratil, zinzilikari — péndulo. (A). (B-LM).
Puio-makurra — palo con que se mueven los barguines en las ferrerías. (A).
Sakats — excéntrico. (A).
Soi — herrumbre. (A).
Soi — grieta de metales. (A).
Sutegi — forja. (B-LM).
Totxo — lingote. (E).
Txatarra — chatarra, desperdicios de hierro. (E).
Txibiri — viruta. (E).
Txinbo — paso de agua a la turbina. (A).
Ugar — roña herrumbre, oxido. (E).
Ugartu — llenar deherrumbre, oxidar. (E).
Urregintza — orfebrería. (A). (B-LM).
Urtze — fundición, acción de fundir. (B-LM). (E).
Ustei — llanta de rueda. (A).
Zealdokatu, klunkatu — balancear. (B-LM).
Zear — horizontal. (B-LM). (E).
Zepa — escoria. (A).
Ziarzulo — agujero por donde sale la escoria del horno. (A).
Ziritz — ranura. (A).
Zoi — cáncamo. (B-LM).
Zulape — mina. (B-LM).
Zut, zutik, zuzen-beera — vertical. (A). (E).

Itzberririk bage, mardul zamarrak urten zaigu euskal-teknikari buruzko izen-lerrokada onek, len ere esan dutenez, oraindik izango dira zenbait itz Euskalerrian sakabanaturik nork jasoaren begira. Berriz erderak, griego ta lateratik egokitutako itzak ere, euskera aberastu nai badugu, ongarri liteke gure teknika-elertira ekartzea ; ludi guziak ontzat emanak diranak guri ere ez digu kalterik egingo. Bestaldetik, orrez gañera, emen dijoazen izenak zuztritzat artuko ba-genitu beste-ainbeste itz antolatzea ez liteke zailla ; izkuntza guziak ori berori egin dute eta guk ere egitea, ez bakarrik legezkoa, bear-bearrekoa deritxot.

Ulerbidez, zerrendatzo bat jarriko dut oñarri bezela eta gañerakoak teknikalariek berak aukeratu dezaketela ipiñi bearra sortzen zaizkienean ; era ontura egin lizkiteke :

- Aldatu — transmitir.
Aldatzalle — transmisión, transmisor.
Arrago-galtzairu — acero al crisol.
Bilgin-firifara — trono-revólver.
Burdin-geza — hierro dulce.
Burdin-guri — hierro maleable.
Burdin-lan — siderurgía.
Buru-lankaiburu — cabeza, cabezal de máquina.
Galda-burdin — hierro fundido.
Galda-galtzairu — acero fundido.
Galtzairu - ugarkaitza — acero inoxidable.
Igekille — copiadora, pantógrafo.
Ikaskun — ingeniero.
Ikaskuntza — ingenieria.
Esku-laztabin — taladro de mano.
Ezten-trinka — prensa punzonadora.
Irar-burdin — hierro colado.
Irar-trinka — friccionadora, estampadora.
Karraka-latza — escofina, vaspa.
Koskadun-burpil — engrane, rueda dentada.
Laster-galtzairu — acero rápido.
Lurrun-pazi — caldera de vapor.
Motoi-malladun — polea-escalonada.
Tximist-galtzairu — acero eléctrico.
Zuzengille — rectificadora.

Izen erabilgarri oiek, burdiña zarrak baztarrean bezela erdoituko ezpadira burdin-laneko ikerle edo tecknikulariok duzute itza. Zuen gain baita burni-teknika baratza landu bearra.

Eibar'en, Azaroak 30. (San Andres eguna). 1956.